

**2014KO AZAROAREN 20AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamalau.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Encarna Arrieta Telleria
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2014ko urriaren 16ko aktaren onespena.

2014ko urriaren 16ko aktaren berri eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): "Euskera Plan Estrategikotaz hitz egin genuenean, nik komentatu nuen 2003ko berdina zela aurkeztu zitzaiguna eta aktan, aldiz, jasotzen dena da 2013koa. Beno nire ustetan 2003 esan nuen."

Beste guztiek adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, 2014ko urriaren 16ko akta onartu da, egindako aldaketa barne.

2.- ZORRAK LUZATZEA ETA ZATITZEA. Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

Ezagutzera eman da, 2014ko azaroaren 13ko Hazienda Batzordearen proposamena, hau da:

*"2009ko azaroaren 27an onartu eta behin eta berriro luzatu den erabakiaren arrazoiak irauteaz gain, egoera ekonomiko-finantzario txarra areagotu egin da. Horregatik, hain zuzen ere, Hazienda Batzordeak Udaltzari **proposatzen dio 2.015eko abenduaren 31ra arte lehengoko akordioaren indarraldia luzatzea.***

Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoiei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea..

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udaltzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharpekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

a. 800 eurotik beherako zorrak:

- Gerorapena:

a.1. 100 eta 200 euro artean	1 hilabete
a.2. 201 eta 400 euro artean	2 hilabete
a.3. 401 eta 600 euro artean	3 hilabete
a.4. 601 eta 800 euro artean	4 hilabete

- Zatikapena

<i>a.5. 100 eta 200 euro artean.....</i>	<i>1 hilabete</i>
<i>a.6. 201 eta 400 euro artean</i>	<i>2 hilabete</i>
<i>a.7. 401 eta 600 euro artean</i>	<i>3 hilabete</i>
<i>a.8. 601 eta 800 euro artean</i>	<i>4 hilabete</i>

b. 800 eurotik gorako zorrak:

- Gerorapena:

<i>b.1. 800 eta 12.000 euro artean.....</i>	<i>6 hilabete</i>
<i>b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean</i>	<i>12 hilabete</i>
<i>b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean</i>	<i>18 hilabete</i>
<i>b.4. 36.001 eurotik aurrera</i>	<i>24 hilabete</i>

- Zatikapena:

<i>b.5. 800 eta 12.000 euro artean.....</i>	<i>6 hilabete</i>
<i>b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean</i>	<i>12 hilabete</i>
<i>b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean</i>	<i>18 hilabete</i>
<i>b.8. 36.001 eurotik aurrera.....</i>	<i>24 hilabete</i>

- Organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gutxiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatik diruaren interes legala sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretiazko aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2015eko abenduaren 31n amaituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutako hamazazpi zinegotziek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

3.- KREDITU ALDAKETA. 6. zenbakia duen kreditu transferentzia.

Ezagutzera eman da, 2014ko azaroaren 13ko Alkatearen proposamena:

“Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 6. Kreditu Transferentzien bidez 28.400,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
1.5000.622.443. 10.01	Eraik.: Hilerriko nitxoer berrikuntza	250.000,00	28.400,00	221.600,00
GUZTIRA		250.000,00	28.400,00	221.600,00

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.5000.601.444.10.0 1.2013	Azp. eta urb.: Bidegorriaren ardatz nagusia	231.302,88	16.000,00	247.302,88
1.1000.211.121.00.0 1	Jabekideen kuotak: etxebizitza eta lokalak: Ekipo informatikoak: bake	17.000,00	10.000,00	27.000,00

	epaitegia	0,00	1.800,00	1.800,00
1.1000.626.122.00.0 1	Ekipo informatikoak: liburutegia	1.494,00	600,00	2.094,00
1.4000.626.451.30.0 1				
	GUZTIRA	249.796,88	28.400,00	278.196,88

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bidegorriaren ardatz nagusirako aldaketa proposatzen da. Zer falta da?. Batzordean ez zaigu eman horren berri eta nik uste dut oraindik obra hori ez dela likidatu.”

Alkate jaunak (BILDU): “Obra ez da likidatu. Kreditua gehitzearen arrazoia zera da: horko semaforoaren aldaketa eta asfaltaketa.”

Bozketa eginda, bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez onartu dute proposamena.

4.- UR KONTSORTZIOAREKIN HITZARMENA. Hitzarmena luzatzea.

Ezagutzera eman da, 2014ko azaroaren 11ko Zerbitzu Batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

I.- 2004ko azaroaren 5ean Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artean hitzarmena sinatu zen, azken entitate honek uraren ziklo integralaren kudeaketa eramateko, hain zuzen ere, uraren hornidura eta saneamenduari dagokionez, “altako” eta “bajako” sareen kudeaketarako eta egin beharreko inbertsioak egiteko. Horretarako Beasaingo Udalak bere titularitateko emakida, emari-aprobetxamenduak, azterlanak, proiektuak, sareak, instalazioak eta kontsortziazatutako zerbitzuei lotutako beste baliabideak Kontsortzioaren esku jarri zituen.

II.- Aipatutako hitzarmenaren iraupena hamar urtetan finkatu zen, 2005eko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita eta amaitzear dagoenez, bi aldeek interesa dute hitzarmena luzatzeko eta berritzeko eta azken kasu honetan, egin beharreko inbertsio eta hauen kostuei buruz.

Beraz, beharrezko lege eta jardutze-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta HITZARMEN hau izenpetzea erabaki dute ondorengo atalen arabera.

ATALAK

Lehenik.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez, URAREN ZIKLO INTEGRALA kudeatzen jarraituko du. Kudeaketa horrek, ur-hornidura eta ur-saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketak aurreikusten ditu eta baita ere beharrezko diren inbertsioak burutzea.

Bigarren.- Hitzarmenaren luzapenak hamar urteko iraupena izango du, 2015eko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita, izan ere data honetan amaitzen da aurretik sinatutakoa.

Hirugarren.- Beasaingo Udalak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK egindako eta dokumentu honen I eranskina osatzen duen azterlan ekonomikoa onartzen du. Eranskin horren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, Beasaingo Udalari 978.922 € (%21eko BEZ barne) entregatuko dizkio eta udalerriko sarean 1.585.421,00 €ko inbertsioa burutuko du, aurreko klausulan aipatutako hamar urteko epearen barruan.

Laugarren.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK, BEASAINgo Udalari bermatzen dio, hitzarmen honen bitartez bere gain hartutako kudeaketatik abonatupei eta bezeroei doakien edozein informazioari buruzko konfidentzialsuna eta isilpekotasuna bere langileek gordeko dutela, eta batez ere, Norberaren Datuak Babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak babestutakoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zein hitzarmen honek irauten duen bitartean zein hitzarmena bukatutakoan.

Bosgarren.- 2004ko azaroaren 5ean, Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren artean sinatutako beste klausula guztiak indarrean mantentzen dira.

Horren ondorioz, Zerbitzuak, Landa Ingurunea eta Ingurumena Batzordeak, bertaratutako guztien adostasunarekin, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez ematen jarraitzeko erabakia hartzea. Hain zuzen, Beasaingo Udala Kontsortzio horretako kide da. Kontsortzioak Gipuzkoako Urak SA sozietatearen bidez emango luke zerbitzu hori. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari dagokionez, bai saneamenduari dagokionez ere, bai eta egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.

Bigarren. Uraren ziklo integralaren kudeaketarako sinatu beharreko lankidetzahitzarmena luzapenaren testua onartzea eta, hitzarmen horren bidez, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea uraren ziklo integralaren kudeaketa, likidazioa, tasen bilketa eta prezioak.

Hirugarren. Udaleko Alkate-udalburuari ahalmena ematea Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren hitzarmenaren luzapena sinatzeko, uraren ziklo integrala kudeatzeko.”

Hitz egindako txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Bozketa egin da eta bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez onartu dute proposamena.

5.- KONTRATUA LUZATZEA: ingurune irekiko heziketa eta esku-hartze familiarra programa emateko.

Ezagutzera eman da, 2014ko urriaren 23ko gizarte-ongizate batzordearen proposamena, hau da:

“Ingurune irekiko heziketa programa eta Esku-hartze familiarra programa emateko Lorratz Elkartearekin kontratatatu zen 2012-10-24ean, kontratuaren iraupena 2 urtetakoa zelarik.

Kontratuaren arabera luzatzekotan, urtebeteko alditan egingo da, eta nolana ere, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ez da lau urte baino gehiagokoa izango.

Hau horrela izanik, Ingurune irekiko heziketa programa eta Esku-hartze familiarra programa emateko Lorratz Elkartearekin sinatuta dugun kontratua urtebeterako luzatzea, 2013ko prezioak baldintza pleguaren arabera eguneratuz (Gipuzkoako 2013ko KPIa 0,6 + %3,5)

Horrela, 2014-2015erako prezioak hauek izango dira:

1.- Ingurune irekiko programa: 95.733,07€ urtekoa.

2.- Esku-hartze familiarren programa:

- Ikerketa eta proiektua egiteko ordua: 65,65€*
- Bakarkako psikoterapia ordua: 65,65€*
- Terapeuta bakarrarekin egindako familia psikoterapia saioa: 87,53€*
- Bi terapeutekin egindako familia-psikoterapia saioa: 109,41€*
- Familia hezitzailearen ordua: 29,54€.”*

Hitz egindako txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Bozketa egin da eta bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez onartu dute proposamena.

6.- BEASAINEN EUSKARA SUSTATZEKO 2014-2017 ALDIRAKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKOA ETA 2014KO KUDEAKETA PLANAREN
onespena.

Alkate jaunak (BILDU): “gai hau aurreko Osoko Bilkuratik pasa zen baina mahai gainean uztea erabaki zen eta landu ondoren berriro ekartzen da.”

Alkate jaunak, Euskara eta Kultura batzordeko Lehendakariari hitza eman eta honek ondorengo esan du: “2013. eta 2014. urteetan euskararen gaiaren inguruan dokumentu ezberdinak landu dira eta landu direnen artean, garrantzitsuenak hiru izan dira: udal ordenantza, administrazioko erabilera plana eta ESEP. Hiru dokumentu horiekin batera, Beasaingo kaleetan eta ikastetxeetako patioetan euskararen erabileraren neurketa egin genuen eta 2013ko abenduaren 4an aurkeztu zitzaizen herritar guztiei eta txostena eskuragarri jarri zitzaizen eta hemen esan beharra da guretzat oso datu garrantzitsua atera dugula, zeren eta guretzat inportantzia du jakitea kalean euskara zenbait erabiltzen den, jakin ahal izateko zein egunetan zer aplikatu daiteken. 2003. urtetik 2013. urtera, hamar urteetan, alegia, ez zen kaleko erabileraren neurketarik egin eta ezin ditugu datuak konparatu. Pena da zeren eta lau urteetan behin egingo balitz, agian beste irakurketa bat egitea egongo litzateke.

Udal ordenantzari dagokionean, herritarrekin, udalaren langileekin, udalarekin harremanak dituzten enpresekin eta abar landutako dokumentua izan zen. 2013ko urtarrilaren 11n, Urkijoren errekerimendua jasotzen zen eta gaia bertan behera utzi behar izan genuen. Gaiari berriro ere heldu genion eta 2013ko apirilaren 13ko plenoko gai-zerrendan sartu genuen, baina ezin izan genuen gaia tratatu azken momentuan Itziazrek telefono dei bat egin ostean, esan zigun Urkijok beste gutun bat idatzi zuela. Tamalez, orain dela hogeita hiru urteko ordenantza batekin jarraitzen dugula lanean, baina Plenotik pasa ez bazen ere egindako lana ikaragarria izan da, landu genuen dokumentua oso baliagarria izan zaigu eta hurrengo beste bi dokumentuak landu ahal izateko, hau da, administrazioko erabilera plana eta ESEP. Administrazioko erabilera planari dagokionean 2014ko martxoaren 31n onartu zen batzordean erabilera plana eta ondoren Plenora pasa zen, apirilaren 3ko Plenora.

ESEPi (euskara sustatzeko ekintza plana) dagokionean, eskumena Eusko Jaurlaritzarena da eta dirulaguntzak lortu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak jarritako baldintzak bete behar dira. Derrigortuta gaude plana osatzeko IRATI aplikazioa erabiltzea. Eusko Jaurlaritzak ESEP finkatzen du. 2014ko otsailaren 21ean e-mailez jaso genuen EBEPneren kudeaketarako sortutako IRATI aplikazioa egokitu zutenari buruzko komunikazioa eta lanean hasi ginen. Ondoren, EBEPneko ekintzak eta ESEPra egokitzeko korrespondentziak bidali zizkiguten. Eusko Jaurlaritzak deialdia, ekainaren 19an egin zuen. Guk eskaera ekainaren 30ean egin genuen eta Ebazpena azaroaren zazpikoa da. Parte-hartze prozesua jarri zen martxan eta hori bilera ezberdin aurreikusi genituen

2013ko urriaren 29an, 2013ko azaroaren 5ean eta 2013ko azaroaren 12an. Hamabiko bilera ezin izan genuen egin. Beste bileretan diagnostiko zehatzagoa egitea adostu zen eta ondorioz, esparruz esparru datuak osatu ziren. 2013. urtea amaitzen da eta 2014ko otsailaren 11n egin zen hurrengo bilera eta ekainaren 16an, kultura eta euskara batzordean aurkeztu ziren plan estrategikoa eta 2014ko kudeaketa plana. Epe bat utzi zen ekarpenak jasotzeko uztailaren 11rarte. Uztailaren 17an bilera deitu zen plana partekatzeko, baina asistentzia bermatuta ez zegoenez ez zen egin eta irailera atzeratu zen.

Nahiko garbi eta labur saiatu naiz azaltzen ez dela “korta y pega” bat izan, baizik eta lan bat egiten dela. Nik bi urte daramazkit hemen zinegotzi lanetan eta bi urte hauetan euskararen alde egindako lana oraintxe bertan aipatu dut. Espero dugu, Pleno honetan ESEP aurrera ateratzea. Gure asmoa uztaileko Plenoan egitea zen baina ez zen posible izan.

Azkeneko Udalbatzan Eva Diezek esan zuena literalki irakurriko dut: *Eva Diez andreak (EAJ) esan du: “bera ez zela gogoratzen puntu hau tratatu izana.*

Evak esaten du azkeneko Plenoan puntu hau ez zela tratatu azkeneko batzordean, baina Plenoaren aurreko batzordera joaten banaiz, 2014ko irailaren 16koa, horrela esaten du: *ESEP. Garbinek adierazi du ESEP ekaineko batzordean azaldu ostean, ekarpenak emateko epea eman zuela, baina ekarpenik ez da jaso. Beraz, ekintza plana onartzen bada, hurrengo Udalbatzatik pasako da. Zinegotzi guztiek onartu zuten ekintza plana. Garbiñek gogorarazi du dokumentua irekia dela 2014-2017 plangintzaldirako dela, bera e-postaz bidaltzen badituzue ekarpenak jaso eta aztertzeke prest gaude.*

Hemen argi eta garbi ikusten da EH-BILDUKo lana zein izan den eta beste batzuen jarrera zein izan den.”

Eva Diaz andreak (EAJ): “iraileko batzordearen gai-zerrendan puntu hau ez zen sartu garrantzizko puntua bezala. Bakoitzak ekarri lezakeen puntuan aipatu egin zen ESEP, Ez dakit hitz horrekin esanda nahikoa den edo agian argitu egin beharko den. Dena den guk, euskara sustatzeko planaren dokumentazio guztia jaso genuen eta ekarpenak egiteko hamabi egun besterik ez zitzaigun eman. Guretzat garrantzia duen puntua da eta denon arteko lanketa bat behar du. Beraz, garrantzia duen puntua izanda, gai-zerrendan bakoitzak ekarri ditzakeen ekarpenetan sartzea ez zait bidezkoa iruditzen.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “hamabi egun gehi hamar, guztira hogeita bi egun. Denon lanketa eskatzen duenarekin ados nago eta horregatik, aurreko Plenoan konturatu ginenean zuek esandako hainbat gauza posible izan zitezkeela eta agian tekniko batek ez zizuela bidali behar zizuen dokumentazioa, bertan behera utzi genuen puntu hori eta esan genuen

monografikoa egingo genuela gai honen inguruan. Aurreko astean egin genuen monografikoa eta pentsatzen genuen ekarpen gehiago egongo zirela, baina bueno akta hor egongo da. EAJkoek ehun bat urte darama euskararen alde lana egiten eta hori ez dugu zalantzan jartzen, baina ez duguna ondo ikusten da euskara sustatzeko gidaritzaz beste batzuen esku dagoenean, besteak beste, udal honen gobernuaren esku, zuek behin eta berriz oztopoak jartzen zabilzate. Hori da nire inpresioa eta pena ematen dit.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “lotsa eman beharko lizuke Garbiñe. EAJk egin zuen kritika bakarra Kontseiluaren manifestu hartan, izan zen manifestuak esaten zuela denen partaidetzarekin izan zela eta guri kasurik ere ez zitzaigun egin. Gure kritika nagusia hortik zetorren. Hemen pasatzen dena, alegia. Behin eta berriz esaten duzu EH-BILDU gobernu. Gobernu, BILDUrena da, EH-BILDU ez dago Beasaingo Udalean ordezkaturik. Bakoitzak dugun ordezkartza garrantzitsua da. Normala ez dena da zuek parte-hartze prozesua martxan jarri eta jendearekin bildu euskara kontuak lantzeko eta oraindik ez dago batzorde bakar bat eztabaidatu denik estrategiak zeintzuk izan behar diren. Hemen inork ez du esan zuek lanik egin ez duzuenik. Esaten dena da 2003an planteatzen zen estrategia berdina planteatzen dela orain ere. Teknikariak ere onartu zuen, horrela delako. Beste gauza bat da tramiteren bat pasatu behar den Eusko Jaurlaritzarekiko, baina estrategiak berdin-berdinak dira. Ez dago alde horretatik aldaketarik. Inork ez du esan lanik egiten ez zaretela ari. Aurreko Plenoan esan nuena esango dut, uztailaren batean, nik erantzun bat bota nuen eta...gaur arte. Erantzuna posta elektronikoaren bidez bidali nuen eta gaur arte, baina aurreko batzordean geratu ginen hitz egingo zela...”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “emailez ez zitzaizun bidali eskatzen zenuena, zifra guztiekin? . Aurreko kuddok-ean dago zintzilikaturik.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “niri dokumentazioa bidali zitzaidan, inork ez du kontrakorik esan. Esaten ari garen gauza bakarra da guk erantzuna eman geniola dokumentazio horri eta gure ustea eman genuela eta erantzunik ez zela jaso. Eztabaidetaz arri garenean, mahai baten inguruan eztabaidatu behar da. Gauza ez da dokumentazioa bidali eta ekarpenak egiteko epea jarri eta ez badituzu egiten onartu egiten da eta gero arte. Eztabaidatzen denbora pasatu behar da eta eztabaidatzea hori baino askoz gehiago da. Izapide administratibo bat baino gehiago behar du eta horrela izan da orain arte. Aholku Batzordearen lan garrantzitsua horrek beharko luke. Horregatik gure proposamena izan zen Aholku Batzorde horri beste egitura bat ematea, non Alkatea izango zen batzorde horren lehendakaria.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “eta hori onartu zen”.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “bai, baina naiz eta hori onartu batzordean, ekartzen den dokumentua beste bat da.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “plenoa hasi aurretik esan dugu, nik gai honetan hitza hartuko dudala eta azalduko dudala azkeneko kultura eta euskarako batzordean, Euskarako Aholku Batzordea zeintzuk osatu behar dutenarekiko irekita utzi genuela nahi duenak parte hartu dezan. Guk planteatzen genuen Batzorde horren lehendakaria, euskara eta kulturako lehendakaria izatea, zuek esan zenuten Alkatea izan behar zela eta onartu egin zen. Batzorde horretako kide batzuk zerrendatzen ziren, baina zerrenda irekita uzten zen. Zuen ekarpen batzuk egon ziren, analizatu ziren eta han bertan esan zitzaizuen kontuan izango genuela. Urtarrilaren hasieran batzorde irekia egingo dugu. Pleno honetara sartu aurretik bion artean hitz egin dugu ez delako islatu proposamenean batzordean esandakoa, baina nire hitza eman dizut eta esan dizut horrela izango dela.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “nik aipatu dut zuk ez duzulako aipatu, baina niri logikoena iruditzen zait dokumentu bat onartzen bada, Plenora dokumentu hori ekartzea. Nik onartzen den sartuko dela eta irekia dela. Hala ere zuk deialdi irekia egiten baduzu, esperientziak erakusten du etortzea asko kostatzen dela eta atzetik ibili behar da. Horregatik elkarteak proposatzen ziren.

Neurketari buruz esan, azkeneko neurketak pista eman behar liguke zertarako balio duten. Neurketa horrek 2003tik esaten du Ezkiaga auzoan...”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “gaia ez da hori. Nik uste dut horretarako daudela batzordeak.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “zuk aipamen bat egin duzu eta nik uste dut eskubidea dugula guk ere zerbait esateko. Azkena egindako neurketak esaten du Ezkiaga auzoan 2003tik hona, erabilera bikoiztu egin dela eta hori ez de erreala. Baina hori da egiten diren moduan egiten direlako. Neurketa horiek direkzionatuta egin behar dira, hau da, plan estrategikoak esaten duen lehentasun horiek aintzakotzat hartuta. Haur mundua bada, ikastetxeetan aisia zertan ari diren jakin beharko da. Neurketa zabalak egiten badira, ez dut uste baliorik dutenik. Horregatik ez dira egin urte askotan. Berritoki esango dut, azkeneko neurketa da horren adibide.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “neurketaren inguruan esan, hau ez dela toki egokia horretaz hitz egiteko. Hurrengo batzordean tratatuko dugu eta analizatuko dugu zuen neurketaren dokumentu. Bere garaian aztertu genuen, baina berriro gaiari helduko diogu.

Kontseiluaren gaiari dagokionean, ni ez naiz sartu behar. Goierriko EAJk idatzi bat egin zuen, Goierriko EH-BILDUK erantzun bat eman zion dokumentu

horri eta hor geratzen da. Eztabaidatzeko prest gaude, ez bakarrik euskararen gaian, beste gai guztietan ere bai. Batzordeak irekiak dira eta irekiak izateaz gain, gai-zerrenda bat dago eta azkeneko puntua, norberak lekarkeena dago eta edozer gauza ekarri dezakezue eta tratatu egiten dira. Beti horrela izan da eta izango da.

Egia da dokumentu hau jarraitu beharreko izapide administratibo bat dela, baina izapide administratibo horrezaz gain, guk lana egiten dugu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

“2014-2017 aldirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta 2014ko Kudeaketa Plana onartzea eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarraipena egiteko, Euskara Aholkularitza Batzordeak izango dituen funtzioak eta osaketa zehaztuz, Alkate jaunari baimena ematea partaideen izendapenak egiteko, 2014ko azaroaren 13an Euskara eta Kultura batzordean tratatutakoaren arabera”

7.- IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA ERABILTZEKO ARAUDIA.

Arautegiaren aldaketa.

Alkatea jaunak 2014ko azaroaren 20an, Euskara eta Kultura Batzordearen proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

I.- 2013ko uztailaren 4an Beasaingo Udaleko Osoko Bilkurak hasierako onespina eman zion "Igartzako Monumentu Multzoa Erabiltzeko Araudia" ezartzen duen testu osoari. Informazio publikorako epealdian alegaziorik izan ezenez, araudia behin betiko onartua geratu zen eta 2013ko irailaren 30ean argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (186 zb. 59 orr.).

II.- Eguneroko kudeaketan, ordea, hainbat alderdi aurreikusi eta arautu gabe daudela ikusi da eta honen ondorioz proposatzen da aipatutako araudiari aldaketa hauek egitea:

- 4.2. artikuluari ondorengoa eranstea: "Ezkontzetan patioa apaintzeko erabiliko diren lore eta apaingarriak egun berean, eta gehienera jota hurrengo goizean, kendu beharko dira. Muntai berezietan Igartza kudeatzen duten arduradunekin kontsulta egin beharko da."

- 4.3. artikulua 4.4. izatera pasatuko da eta 4.3. ondorengoa izango da: "Ekitaldia aurrera eramateko erreserbatutako aretoaz gain, ezingo da erreserbatua ez dagoen beste gunerik erabili."

- 4.4. artikulua 4.5. artikulua izatera pasatuko da; 4.5. artikulua 4.6. izango da; eta 4.6. artikulua 4.7. izango da.

- 4.8. artikulua hau izango da: "Ekitaldia edo ospakizuna amaitzean ezingo da, inola ere, arrozik, konfetirik, lore-hostorik eta horrelakorik bota."

- 4.7. artikulua 4.9. izango da.

- 4.10. artikulua hau izango da: "Igartzako Monumentu Multzoan eta inguruan petardoak, koheteak, su-ziriak eta antzekoak botatzea debekatuta dago."

- 4.8. artikulua 4.11. izango da; 4.9.a 4.12. izango da; 4.10.a 4.13. izango da; 4.11. artikulua 4.14. izango da.

- 4.15. artikulua hau izango da: "Debekatuta dago edozein motako ibilgailuetan Igartzako zubia zeharkatzea.

Autoekin eta bestelako ibilgailuekin Dolarea Hotelaren aurreraino iritsi nahi duten haiek aurrez hala adierazi beharko diote Igartza kudeatzen duen arduradunari. Eta hau izango da, nahi eta nahi ez, ibilgailuek jarraitu beharko duten bidea: Dolare

kaletik, ingeles akademia berriaren ondotik sartuko dira Dolarea aurrera. Dolarea Hoteleko aparkaleku sarbidearen aldameneko zebrabidetik, zubi aurreraino eraman ibilgailua, eta atzera Dolarea atzean ezkutatu autoa. Igartzara datozen autobusek Aspace aurreko eta Peategi kaleko paradak erabiliko dituzte ezkontzak dirauen bitartean aparkatzeko."

Une honetan M^a Mar Celaya andrea batzarralditik kanpo atera da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, batzarraldian dauden hamasei zinegotziek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

Lehenik.- "Igartzako Monumentu Multzoa Erabiltzeko Araudia"ren aldatetari hasierako onespina ematea.

Bigarrenik.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz araudia jendaurrean jartzea, erreklamazioak aurkeztu daitezten 30 laneguneko epean. Eta epe honetan erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, araudiaren aldaketa behin betikoa bihurtuko da.

Una honetan, M^a Mar Celaya andrea berriro batzarraldian sartu da.

8.- ELKARLAN HITZARMENAK:

- Informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri ematea, Beasaingo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean.

Alkate jaunak, 2014ko azaroaren 12ko Antolakuntza batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta udalek, besteak beste, honako betebeharrak dituzte: herritarrei intereseko zerbitzuak eskaintzea, eraginkortasuna bilatzea baliabide publikoen erabileran, eta administrazio-tramitazioa sinplifikatzea, gardentasun-, parte hartze- eta lankidetzaren printzipioekin bat etorrira.

Obligazio horiek bai EAEko Administrazioak bai Toki Administrazioak bete beharrekoak dira, aza- roaren 26ko 30/1992 Legeak 1. artikuluan eta, bereziki, 2.1 artikuluan adierazi bezala. Horretarako, Toki Administrazioarekiko harremanen araubide berezia jasotzen da 9. artikuluan; harremanotan, gai honetan oinarrizkoa den legediari jarraituko zaio, eta, haren osagarri gisa, Legearen I. tituluan xedatutakoari.

Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da herri-administrazioen arteko lankidetzaren areagotzea. Hain zuzen ere, administrazioek informazioa trukatzeko sistemak sortu behar dira, hartara, herritarrei, izapideak egin behar dituztenean, datuen ziurtagiriak ekartzeko eskatu beharrik egon ez dadin.

2. -Horretarako, beharrezkoa da azkar eta eraginkorki aurrera egitea administrazio elektronikoaren garapenean, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legea benetan betetzeko. Izan ere, lege horren arabera, herri-administrazio guztiak beharturik daude beraiekiko harremanak elektronikoki gauzatzeko aukera ematera; eta, horretarako, ezinbestekoa da administrazio guztien eskura jarritako zerbitzu elektroniko batzuk edukitzea lehenbailehen, lege ezarritako betebeharrak benetan betetzea lortu ahal izan dadin.

AKORDIO PROPOSAMENA

Hau guztiagatik, ikusirik Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioaren hitzarmena informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko, Antolakuntza Batzordeak, ondorengo akordio proposamena luzatzen dio Udaltzari :

Lehenengoa.- *Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioaren eta Beasaingo Udalaren arteko hitzarmena informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko sinadura.*

Bigarrena.- *Alkateari baimendu Beasaingo Udalaren izenean lankidetzaren hitzarmena sinatzeko. »*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez onartu dute, 2013ko urriaren 17an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako lankidetzaz-hitzarmena, Jaurlaritzaren Kontseiluak udalekin izenpetzekoa informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko xedea duena.

- Udal erroldatik datuak telematikoki eskuratzea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren aldetik.

Alkate jaunak, 2014ko azaroaren 12ko Antolakuntza batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernaniko Udalek osatutako kontsortzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

II.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integratzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integratzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zizkion.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLAk egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatuta daudela.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzeari errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

III.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke

eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

PROPOSAMEN AKORDIOA

Hau guztiagatik, Gipuzkoako Garraio Agintaritzak egiten duen errolda telematikoki eskuratzeko eskaera azterturik eta Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta tratamendua segurtasun neurriekin batera dauden baldintzak betetzen direla ikusirik, Antolakuntza Batzordeak ondorengo akordio proposamena egiten dio udalbatzari :

Lehenengoa.- Gipuzkoako Lurralde Garraio lankidetzak eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena sinadura onespenez udal errolda sarbide era telematikoan.

Bigarrena.- Alkatetari baimendu Beasaingo Udalaren izenean lankidetzak hitzarmena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez onartu dute ondorengo hitzarmena sinatzea :

« GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, BEASAINGOKO UDAL ERROLDATIK DATUAK TELEMATIKOKI ESKURATZEARI BURUZKOA

Donostian, 2014ko azaroaren 21ean

ren (e)(a)n.

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Larraitz Ugarte Zubizarreta andrea, presidente gisa, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN (aurrerantzean, GGLA) izenean eta ordezkari gisa.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2014ko urriaren 31an egindako GGLAREN Ohiko Batzar Orokorrean onartutako erabakiaren bidez emana.

Bestetik, Koldo Agirre Mujika jauna, alkate gisa, Beasaingo Udalaren (aurrerantzean, Udala) izenean eta ordezkari gisa.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmena du, 2014 azaroaren 20ko udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez emana.

Esku hartzen duten alderdiek elkarri aitortzen diote lankidetzak hitzarmen hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna.

AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Erreenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernaniko Udalek osatutako kontsorzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebus txartelaren bidez, Lurraldebuseko hiriarteko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatzeko bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarreragingarria da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Erreenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurraldebus txartelak hiriarteko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundu zuen nabarmen. Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurralde Historikoko garraiobide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraiobide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lurraldeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu du. Horrela, 2012an, lurraldeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Erreenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurraldeko garraio publiko kolektiboan tarifak integrazteko sistema ezartzeko Lankidetzako Protokolo Orokor bat sinatu zuen.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetzako esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraiobide guztietan sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko litzatekeela, garraiobide guztietan komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integrazteko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integrazteko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integrazteko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zizkion.

IV.- Egun, taldeentzako 130.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLAk egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatuta daudela.

V.- GGLAren helburu nagusien artean dago erakundearteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz, eta bestetik, erabiltzaileei eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, lan administratiboak sinplifikatuz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLAk ulertzen dute egokia dela GGLAk taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituen.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzea errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

VI.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.

Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

Adierazitakoagatik guztiagatik, bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da GGLAk taldeentzako mugi txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egoteko beharrezko eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAk mantendu behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea ere.

BIGARRENA.- Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta tratamendua.

GGLAk aitortzen du badakiela eskuratu duen informazio guztia eta, bereziki, izaera pertsonala duen informazioa erabat konfidentziala dela, eta horren arabera, bere erantzukizunpean, bere buruari betebeharrak hauek ezartzen dizkio:

1. Informazioa lehenengo klausulan deskribatutako xederako erabiltzea eta hirugarrengoei ez ematea.

2. Egoki lekiokkeen edozein betebeharrak betetzea, indarrean dagoen arau-esparrua eta, zehazki, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa eta hori garatzeko erregelamendua modu zorrotzean errespetatuz.
3. Hirugarrenei informazioa ez jakinaraztea, ez ezagutaraztea, ezta hori gordetzeko ere.
4. Informazioa soilik beren betebeharrak hori ezagutu gabe bete ezin dituzten langileei jakinaraztea.
GGLA sekretu betebeharrak betearaztearen arduraduna izango da, beharrezkoak diren neurriak hartuz.
5. Bai GGLA bai bere langileak atal honetan ezarritako konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharrari lotuta egongo dira.

HIRUGARRENA.- Segurtasun neurriak.

GGLAk eskuratzen duen informazio ororen konfidentzialtasuna gordetzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolaketakoak hartzeko konpromisoa hartzen du, bereziki informazio pertsonala, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe eskuratzeko moduan.

LAUGARRENA.- Aplikatzeko printzipioak.

Hitzarmen honetan printzipio eta arau hauek bete behar dira:

1. Datuak, dauden zeregin eta beharrera egokituko dira.
2. Eskatzen diren datuak horiek erabiltzeko xedeekiko proportzionalak izango dira.
3. Datuak transmititzeko eta eskuratzeko baliabideak seguruak izango dira.
4. Kostuak eraginkorrak eta ahalik eta txikienak izango dira.
5. Datuak ezingo dira transferitu.

Kasu guztietan, GGLAk, aurretiaz, eragindako pertsonen baimena jaso beharko du horien erroldako datuak eskuratzeko. Emandako baimena jasota geratuko da dagokion espedientean.

BOSGARRENA.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak soil-soilik GGLAren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzerako mugatuko dira.

Horrela, hitzarmen honetan deskribatutako taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatutako daudela egiaztatuko da.

Hitzarmenaren xedea burutzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, adierazi behar da soil-soilik sistema informatikoak erabiliko direla, SFTP, FTPS edo SSL, esaterako. Dena den, sistema horiek, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.

SEIGARRENA.- Ez betetzeak.

Informazio hori modu okerrean erabili edo eskuratzeko egon litezkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak, edo datuak isilpean gordetzearen urratze oro alde

batera utzita, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortua) dagozkien zereginen kalterako izan gabe, aldeetako batek hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez badu, besteari zuzenbide osoz eta berehala amaitzeko ahalmena emango dio.

Edozein arrazoiengatik hori amaitzen denean, GGLAK, berehala, hitzarmena gauzatzearen ondorioz eskuratu ahal izan duen informazio oro itzuliko du, hori edozein euskarritan egonda ere.

Aipatu informazioa itzuli arte, GGLAK hori modu egokian gordeko du.

ZAZPIGARRENA.- Erantzukizuna.

GGLAK, berak edo informazioa eskura dezakeen langileren batek hitzarmen honetan jasotako betebeharrak edozein ez betetzearen ondorioz sortutako kalte-galera guztien erantzukizuna izango du.

ZORTZIGARRENA.-Hitzarmena amaitzea.

Hitzarmena amaitu egingo da ondoko kausaren bat gertatzen denean:

- *indarraldia igaro delako;*
- *aldeek espreski erabaki dutelako;*
- *alderen batek hitzarmena salatu duelako, horren arabera beste aldeak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik; betebeharrak bete ez dituen aldeak beste aldeari ez betetze hori dela-eta eragindako kalte-galera guztien erantzukizuna izango du;*
- *Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza desegin delako.*

BEDERATZIGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den unean jarriko da indarrean eta GGLAK taldeentzako MUGI txartelak izapidetzearen eta igortzearen baldintzapean egongo da.

Eta adostasuna erakusteko eta hitzarturiko guztia behar bezala jasotzeko, aldeek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazten den tokian eta egunean.

HAMARGARRENA.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 57. artikuluan eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 30/1992 Legearen 6. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaio.”

9.- MOZIOA, alderdi sozialistak aurkeztutako mozioa ebolari buruz.

Alkate jaunak, alderdi sozialistako zinegotziei hitza eman die, eta Santiago Urdampilleta jaunak mozioa hau irakurri du:

“El ébola continúa su avance en África. Los datos adelantados por el director general de Emergencias de la Organización Mundial de la Salud (OMS), indican que ya se han superado los 13.000 casos y las 5.000 muertes. El ébola está padeciendo una fase de aceleración de la enfermedad, que cada dos o tres semanas duplica su incidencia.

Los datos generales que maneja la OMS apuntan que los enfermos que no llegan a un centro de tratamiento tienen una mortalidad del 80%, mientras que en el caso de quienes si son ingresados se sitúa en el 60%.

La diferencia en la supervivencia si se acude a un lugar especializado o no resulta importante. Por eso, la OMS, ONGs, donantes y países afectados han acordado la apertura de 56 centros de tratamiento especializado en África para tratar la enfermedad. De ellos, 15 están operativos, 22 están comprometidos, pero hay 19 para los que están buscando financiación y personal médico.

Organizaciones médico-humanitarias, como por ejemplo Médicos Sin Fronteras, han advertido de que se encuentran al límite de su capacidad como organización y han asegurado que seguirá habiendo casos de ébola en los países occidentales mientras no se controle la epidemia en su origen, en África Occidental.

La epidemia de ébola ha provocado una crisis humanitaria que está ocasionando el colapso de las infraestructuras en los tres países más afectados por el virus, que son Guinea Conakry, Liberia y Sierra Leona, donde además se está complicando sobremanera el tratamiento de otras graves enfermedades, como la malaria o la diarrea, que causan un número de fallecidos mucho mayor.

La sociedad se debe sensibilizar sobre la crisis epidemiológica y sobre la labor humanitaria del personal sanitario y recaudar fondos que ayuden a combatir la enfermedad en origen. Porque los 500.000 euros comprometidos por el Gobierno Central es una ayuda escasísima, teniendo en cuenta además que España ha sido uno de los países que ha padecido casos de esta enfermedad en su propio territorio.

Las declaraciones de buena voluntad no ayudan a frenar la epidemia. Por ello, el Grupo Municipal Socialista propone someter a debate en Pleno la siguiente

MOCION

1- El Ayuntamiento Pleno acuerda entregar 10.000 euros a Médicos Sin Frontera para luchar contra la crisis humanitaria generada en África por la epidemia del ébola.

2- El Ayuntamiento Pleno insta a la Diputación Foral de Guipúzcoa y al Gobierno Vasco a que realice las aportaciones económicas que consideren necesarias a organizaciones médico- humanitarias que luchan en África contra la enfermedad del ébola.

3- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Central a incrementar la ayuda económica destinada a la lucha contra la epidemia del ébola en África.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “todos los Ayuntamientos tienen, más o menos, su partida para cooperación internacional y el nuestro también, así que no hay problema para apoyar.”

Idoia Baztarrika (BILDU): “Guk erabiltzen ari garen datu hauek komentatuko ditugu. Datu bildugarriak dira, 13.000tik gora gaixotasuna hartu dutenak, 5.000 horren eraginpean hil direnak, gaixotasuna bikoizten ari da astetik astera eta baita Osasunaren Mundu Erakundeak gobernuz kanpoko erakundeekin irekitzen ari den momentu honetan zenbat tratamendu espezializatu eman ahal izateko. Udalean badugu larrialdietako laguntza kontu-saila eta gaur bertan egin dugun batzordean bidea jarraitu duen laguntza ematea adostu dugu. Kasu honetan, Palestinara. Guk ikusten dugu laguntza bide honetatik izan beharko litzatekeela. Epea bukatuta dago, baina kasu honetan larrialdietako egoera batetaz hitz egiten ari gara. Premiazkoa eta ezinbestekoa da egoera hau eta epea nahiz eta bukatuta egon, uste dugu bidea, larrialdietarako laguntzak emateko bidea jarraitu beharko lukeela, hau da, eskaera egin eta proiektua aurkeztu eta aztertu. Beraz, gure jarrera baiezkoa da, baina modu horretan eginda.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beno orduan, baldintza hori egongo litzateke.”

Idoia Baztarrika (BILDU): “bai orain arte proiektu guztiekin egin den moduan.”

Alkate jaunak (BILDU): “ados gaude baina uste dugu legezkoak diren bideak jarraitu behar direla. Gutxienez justifikazio bat ekarri egin beharko lukete. Ados gaude mozioarekin ikusten dugulako behar hori badagoela eta Udalean oraindik kontu-sail bat badago gastatu ez dena eta hortik bideragarria izan daiteke.”

Bozketa eginda, bildutako hamazazpi zinegotziek, aho batez onartu dute mozioa.

10.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2014ko urriaren 11tik azaroaren 15erarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2014ko urriaren 11tik azaroaren 15erarte Alkateak emandako Ebazpenak.

11.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

IGARTZA

Malu Vallés andreak (EAJ): “en el último pleno el Sr. Alcalde se comprometió a permitir mi participación en la comisión para hacer un seguimiento de lo relacionado con Igartza. Ha habido varias comisiones en las que se ha tratado el asunto y no he tenido ocasión de participar. Reiterar ese deseo. Es evidente que está en el Kuddok, pero cuando a una no le llega la notificación de la convocatoria de la comisión, que además se manda con dos días de antelación, es difícil saber.”

Alkate jaunak (BILDU): “intentaremos notificar cuanto antes.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Si. A la vez que los demás. No antes que nadie.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “hirigintzak egiten du ondo. Denok ordezkokak garenez, denoi iristen zaigu. Ez litzateke gaizki egongo, denak denona jakitea. Horrekin irtenbidea emango litzaioke.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ados.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “quisiera comentar algo a Aitor Aldasoro. El pasado lunes, tuvimos Junta de Gobierno Local y fuiste a preguntarle al técnico de servicios a ver si sabía algo de la fecha. Estoy hablando del frontón. Si me lo hubieras preguntado a mi, ya que estuve conmigo, te habría dicho que hacía ya una semana y media que se había encargado y hoy a las nueve de la mañana han puesto la fecha del año 2000. En 1990 comenzó el proyecto de la pérgola y el 2000 finalizó el primer frontón, porque luego hubo una remodelación y luego vino el cubrir el frontón. Yo estoy encantada de que se mencione el tema porque de esa manera, será que no hay otros temas más importantes de los que hablar. Si lo más importante es la fecha del frontón, debe ser porque están haciendo las cosas bastante bien.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “yo no fui a donde el técnico. Me lo encontré al salir del Ayuntamiento y le pregunté y me dijo que a él nadie le había dicho absolutamente nada. Es un informe que nosotros tenemos desde junio. ¡Ya ha llovido!. Yo pregunté en el anterior pleno y se me respondió que no se sabía nada.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “ha llovido poco.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “ha llovido poco. Vale, bueno cinco meses.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hogeian amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.